

IKASTETXEKO POLITIKA DIGITALAREN DOKUMENTUA

2019-2020 IKASTURTEA

IKT Batzordea

1. PRINTZIOAK

Intxaurrondo Hegoako Hezkuntza Proiektua 2017-2018 ikasturtean osatu eta onartu zen ikasturte bukaera aldera, ikastetxearen nortasunaren printzipio, egitasmo eta alderdi metodologikoen inguruan hausnarketa sakon, kritiko eta baikor bat egin ondoren:

Intxaurrondo Hegoa ikastetxearen egitasmoa, honako printzipio hauetan oinarritzen da: Publikoa, euskalduna, eleanitza, inklusiboa, baloreak bultzatzen dituena, akonfesionala, norbanakoaren ikuspegi integral batetik ikaslea bere aprendizaiaren protagonista dela ulertzen duena eta berritzailea.

Gure ikastetxearen ibilbidean, nortasun ezaugarriak nagusienetako bat, ikuspegi berritzailea izan da hain zuzen ere: ikuspegi metodologiko berritzaileak jarri ditugu martxan eta aitzindari izan gara, eskola duela 20 urte sortu zenetik ez gero, proiektuen bidezko Curriculumaren trataera globalizatua aplikatuz, ikaskuntza kooperatiboaren printzipioen bitartez eskola inklusibitatea bultzatuz,... eta eskola *berritzaile* bezala definitzen gara, eguneroko errealitate etengabe egoituz joango den eskola nahi dugulako, ikasle gogotsuak, jakinmina dutenak, eta ekintzaileak izatera bultzatuko dituena, bizitzan norbanakako nahiz taldeko erronkei sormenez eta, arduraz eta zentzu kritikoz erantzun diezaieten.

Gainera, argi dago azken urteotan baliabide digitalen garapenak pertsonen formazio eta beharretan eraldaketa sakona eragin duela eta ukaezina da errealitate berri horrek heziketa prozesuaren egokitzapena eskatzen duela eta, nola ez, prozesu horretan parte hartzen dugunon eginkizun eta egiteko moduan ere. Geletan baliabide digitalen erabilerari bultzada eman nahi diogu eta benetako tokia egin nahi diogu ikasteko eta irakasteko prozesuan gure **Hezkuntza Proiektuan zehazten diren helburu eta lehentasunekin bateratuz:**

- *Irakasleei prestakuntza eta eguneratze jarraitua izateko aukera eskaintzea, ikastetxearen beharrak eta baliabideak kontuan hartuta.*



- *Teknologia berrien (IKT) erabilera areagotzea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren eta eskola-komunitatearen eragileen partehartze-aktiboaren zerbitzura ipinita.*
- *Gure ikastetxearen eta beste ikastetxe batzuen, toki, erakunde eta elkarte sozialen, kulturalen, lan arlokoen, etab., arteko lankidetzak sustatzea, gure hezkuntza jarduerak aberasteko*

Helburu eta egitasmo horiek guztiak bermatu ahal izateko ezinbestekoa da gure eskolako baliabide digitalen eguneraketa eta berriztapena, metodologikoki ekar ditzakeen moldaketei eta, zer esanik ez, irakasle on prestakuntzari dagokienez.

Beraz, gaur egungo errealitateak abiatuta, bide horretan aurrera egin eta, behar dugun formazioa jasoz, baliabide digital berriak ezagutzen, erabiltzen eta sortzen joatea dugu helburu, gure jardueren metodologietan eraginez.

Bestalde, gure eskola kokatua dagoen inguruko giza ezaugarriei egokitu beharrean gaude, familien giza eta kultur baliabideak, ISEK edota hizkuntza alderdiak ikuspegi inklusibo eta konpentsatzaile bat duen Hezkuntza egitasmo bat gauzatu ahal izateko (ebaluazio diagnostikoko azken txosteneko datuen arabera, gure ikastetxeko familiek ISEK baxua dute). Datu adierazgarri bezala, aipatu gure ikasleriaren % 64ak material kuota jasotzen duela; jangela kuota, berriz, %54ak. Horregatik guztiatik, gure curriculumean informazioaren trataera eta teknologia berrien uztarpena erabat premiazkoa dela iruditzen zaigu, baliabide teknologikoak ikasleria guztiaren esku daudela ziurtatuz. Ikasle bakoitzak bere gailua izan dezan ere proiektu honen onarpenak egoera sozioekonomiko baxuagoa daukaten familiekiko ikuspegi konpentsatzailea ahalbideratuko luke.

Idea hori **Heziberri 2020 dekretuarekin bat dator**, bertan, oinarritzko lehen zehar kompetentziari dagokionez zera azpimarratzen baitu: *hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako kompetentzia eta komunikazio digitalerako kompetentzia bermatzeko, ikasleak hitzezko eta hitzik gabeko kodeen erabilpenean trebatu behar direla baina, aldi berean, komunikazioaren teknologiak modu sortzaile, kritiko, eraginkor eta seguru*

Baratzategi, 19-20015 Donostia

Tfnoa: 943 29 70 23; Faxa: 943 27 90 59

e-posta: info@hegoa.eus 013079aa@hezkuntza.net

Web orria: www.hegoa.eus

2. METODOLOGIA

Besteak beste, ikaslearen ikuspegi globala eta berritzailea dugun heinean, gure ikuspegi metodologikoa ere globala da, horregatik:

- Arlo desberdinak elkartzen dituen **“Proiektu”** globalizatuen metodologiaren bitartez lan egiten dugu, disziplina-arteko ikuspegi batetik, ikaslearen aniztasunari eta erritmoei egokituz.
- Ikasleak proiektuen diseinuan eta aurrera eramatean partaidetza aktiboa dute, dakitenetik abiatuz, irakaslearen laguntzarekin. Ikaskuntza testuinguru batean kokatzen dugu, esanguratsutasuna ziurtatuz.
- Irakaslearen rola gidari gisa ulertzen dugu, ez ezagupenaren transmisore huts bezala.
- Bizitzarako egoerei aurre egiteko ikasle konpetenteak hezi nahi ditugu, hau da, haien gaitasunak egoera errealean eta erronkei aurre egiteko erabiltzeko gai izan daitezela. Horregatik, gure sekuentzia didaktikoetan “arazo egoera” bati aurre egitea, edota “azken xede” bat aurrera ateratzea dugu helburu.
- Informazio iturri ugari eta anitzak erabiltzen ditugu, ikaslearen eta familien ekarpenak kontutan izanik. Zer esanik ez, gaur egungo errealitatera egokituz, Informazio eta komunikaziorako teknologia berriak ere erabiltzea ezinbestekoa da, modu kritiko eta arduratsu batean.
- Gizalegearen baloreak, aniztasunari errespetuzkoak, hezkidetzakoak, ... arlo guztietatik eta une oro lantzen dira, zehar konpetentzia gisa.
- Balore demokratikoen transmisioa nabarmendu nahi dugu, bai landuko diren edukiak erabakitzerakoan, bai eskolaren antolakuntzako araudian eta egunerokotasunean ere, ikaslearen partaidetza, ahal den neurrian, ordezkari sistema baten bidez ziurtatuz.
- Urtean behin, sekuentzia didaktiko bat gutxienez, bertikalki lantzen da, hau da, 2 urteko ikasleetatik hasita, 6.mailako ikasleetaraino, maila guztietako ikasleek parte hartuz. Landuko den gaiaren aukeraketa demokratikoki egiten da, ikasle

eta irakasleek botoa emanaz, gela bakoitzak proposatzen duen gaia ordezkarien batzordean defendatu ondoren.

- Bakarka zein taldekatze desberdinetan lan egiteko jarduerak diseinatzen ditugu, ikaskuntza kooperatiboko estrategiak suspertuz, desberdinen arteko elkarlana bultzatuz, bai maila bakoitzeko ikasleen artean, bai adin desberdinetako ikasleen artean ere, elkar tutoretza bultzatuz.

Ebaluazioa

- Ebaluazioa prozesu jarraia da. Ebaluazioan askotariko estrategiak eta baliabideak erabiltzea aniztasunarekiko erantzunari mesede egiten dion adierazle argia da. Hori kontutan izanik, eguneroko lanaren behaketa eta jasoketaren bitartez, tresna desberdinak erabiliko ditugu: behaketa erregistroak, ikasleen ekoizpenak, errubrikak, froga objektiboak...
- Ikaslea bere ikaskuntza prozesuaren partaide aktiboa dela uste dugu. Horregatik, autoebaluazio estrategiak garatzeak ikaslearen motibazioa areagotzen du bere ikaskuntzaren protagonista dela sentiarazten duelako. Ikaslea bera kontziente izan behar da bere lorpen eta ahulezietaz, beti ere, hobekuntza eta aurrerapena izanik helburu. Horregatik, auto ebaluaziorako denbora eta tresnak eskaini behar dizkiogu gure sekuentziak diseinatzerakoan, bai hasieran, aurre ezagupenetaz eta ikasitakoaz ohartaraziz.
- Ikaskuntza kooperatiboa eta talde jardueretan, ikasleen arteko ebaluazioari garrantzia ematen diogu, horregatik ikasleen arteko ebaluazioari ere tarte bat eskaintzen zaio sekuentziak aurrera eramaterakoan.
- Eduki akademikoez gain, ikasleen kompetentzia maila neurtzen da, hau da, haien gaitasunak praktikan arazoei aurre egiteko ahalmena eta estrategiak.
- Aurreko guztia kontutan izanik, irakasleari dagokio legediaren arabera, ikasleak kalifikatzea, baina kalifikazio hutsaz gain, ebaluazioak izaera hezitzailea duela ulertzen dugu eta honen helburu nagusia, ikaskuntza-irakaskuntza prozesua hobetzea izango da, eta premiak hautemateko, diagnostikoa egiteko eta prozesu osoa birbideratzeko erabiliko da.

3. IKT BALIABIDEAK

3.1. Eskolako Intraneta: Premia Sarea.

Ordenagailu mota desberdinak ditugu, berriztu planarekin berritzen joan direnak. Orain bertan 20 ordenagailu berri ekarri dituzte eta zerbitzari berria jarri dute TLL erakoa (birtualizatua). Zerbitzari zaharretik migrazioa egin da eta "ajuste" fase batean gaude. Esan behar da orain arte asko funtzionatu izan dugula honekin baina gaur egun lehen urratsak ematen hasi gara Drive-ekin lan egiteko, erabilgarriago ikusten dugulako eta G-suitek eskaintzen dizkigun baliabideak madu errazago batean kudeatzea ahalbideratzen duelako. Hala ere, intraneta erabiltzen jarraitzen dugu, batez ere administrazio lanetarako eta aurreko ikasturteetako baliabideak eskuragarri daudelako. Honakoa da gure sarearen osaketa:

PREMIA SAREAREN ANTOLAKETA	
UNITATEA	ERABILERA POLITIKA
Orokorra Zor013079 (O:)	Komunitate osorako karpeta. Zuzendaritza taldekoek eta Premia arduradunak kudeatuko dute. Denek dute sartzeko baimena.
Administrazioa	Zuzendaritza taldearen karpeta partekatua. Zuzendaritza taldeak eta Sare Administratzaileak bakarrik dute aukera sartzeko.
Irakasleak Karpeta Zor013079AZ (N:)	Irakasleen interesekoak diren fitxatgiak sartuko dira. Hainbat karpetara edozein irakasle sar daiteke baina badaude zenbait karpeta, konfidentzialtasun arazoak direla eta, baimen berezia behar dutenak (Aniztasun taldea, eskalak, jarraipenak...). Sare administratzaileak ezartzen ditu baimenak irizpide desberdinen arabera. Irakasle sarearen antolaketa: ..\\..\\..\\Sarearen antolaketa.doc
Ikasleen Karpeta Zor013079AZ (N:)	Gelaz gelako karpetak izango dituzte. Gela bakoitzeko tutoreak eta sare administrariak dute sartzeko baimena ere.
Irakasleen karpetak Zor013079AZ (M:)	Irakasle bakoitzak karpeta propioa izango du. Karpeta hauetan irakasle bakoitza eta sare administratzailea soilik sar daitezke.

3.1.1. Sarbidea:

Zerbitzari gelako RAC-ean 3 Switch daude eta bertatik sare bitartez eskolako puntu desberdinetatik dago sartzeko aukera. Hala ere, ikasturte honetan WIFI konexioa ere badugu eta eskola osoak du estalita seinalea. Seinale indartsua eta egonkorra da. Ikasleek eta irakasleek ere badute sarbidea baina erabiltzaile eta pasahitz desberdinarekin (ikasle2010 edo irakasle2010).

3.2. Gailuak

Homologatutako gailuak hezkuntza saileko inbentarioan daude ikusgai [Materiales inventariados.xml](#) . Hala ere, Eskolak baditu bestelako gailuak homologatu gabekoak. Era batera ala bestera, hemen azaltzen da, laburbilduz, eskolako baliabide digitalen zerrenda:

GELETAKO BALIABIDEAK	
ORDENAGAILUAK	<p>Ikasgela guztietan dago, gutxienez, windows 7 edo windows 10 daukan ordenagailu bana. Ordenagailu hauek irakaslearen erabilerarako dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> • HHko 4 eta 5 urteko geletan, gainera, Windows XP daukaten ordenagailu zaharrak ere badaude ikasleek txokoan erabiltzeko (testu errazak erabili, programa zaharrak...).
PDI EDO ARBEL INTERAKTIBOA	<p>LHko gela guztietan dago mota bateko ala besteko pantaila edo arbel digital elkarreragilea, beti ere funtzio "taktila" duena eta sareko baliabideekin lotuta, baita internetekin ere. Duela bizpahiru hilabete, berriztu planaren barruan, Smartboard kainoi eta arbel digital zaharkituak ordezkatzeko 2 arbel interaktibo ekarri zituzten LH5 eta LH6 mailatarako. Bertan zeuden arbelak matematika eta musika</p>

	<p>geletarako aprobetxatu genituen eta badaude beste bi ingeleseko gelan eta erabilera anitzeko beste gela batean. Mantenuz kanpo badaude ere, badabilta eta erabilgarriak dira. Honez gain, LH1 eta LH2 mailatan ere arbel interaktibo bana daukate eta LH3 eta LH4 mailatan Promethean PDla. Esan behar da irakasleek egunero eta asko erabiltzen duten baliabidea dela eta oso modu positiboan baloratzen dutela errekurtsio hau eskura izatea.</p>
<p>ESKOLA OSORAKO BALIABIDE PARTEKATUAK</p>	
<p>INFORMATIKA GELAKO ORDENAGAILUAK</p>	<p>Informatika gelan 13 ordenagailu daude, azken berriztu planean ordezkatu berriak, denak windows 10 SE dutenak. Honez gain kainoi bat ere badago. Ikasleek badituzte ordu finko batzuk, ikasmila eta arloaren arabera bertara lan egitera joateko eta ordu libreak beharren arabera erreserbatu daitezke. Kopuruz talde batzuk handiegiak direnez, bikoizketak egiten dira bi irakasleren artean taldea banatu eta baliabideak hobeto erabili ahal izateko. Irakasleen formakuntza saioetarako ere maiz erabiltzen dira.</p>
<p>CHROMEBOOK ORDENAGAILUAK. (Eskola ordutan)</p>	<p>Eskolako mediatekan kokatuta dago 10 chromebook dituen armairu kargadorea. Ordenagailu hauek geletara eraman daitezke, wifi konexioarekin arazorik gabe lan egin daitekeelako. Hala ere, irakasle gehienek mediatekara bertaratzea nahiago izaten dute, ikasteko espazio lasaia, handia eta eroso delako eta badaudelako bestelako baliabide ez digitalak ere bertan lan egiteko.</p>
<p>MEDIATEKAKO ORDENAGAILUAK (Eguerditan)</p>	<p>Mediatekako zerbitzu orduetan, hau da, astearte, asteazken eta ostegun eguerditan, 13:00etatik 15:00etara ikasleek mediateka zerbitzua erabiltzeko aukera dute. Bertan, liburuak irakurri edota etxerako lanak egin ahal izateaz gain, chromebook-ak erabiltzeko aukera daukate eta baita zaharragoak diren beste 4 ordenagailu ikastetxeko sareari lotuta. Horiek guztiak, batez ere etxean baliabide digitalak ez dituzten ikasleei begira, eten digitalaren eragina gutxitzeko asmoz, eskolaren ikuspegi integratzaile eta konpentsatzaileari jarraituz ikasleen eskura daude esandako orduetan.</p>

<p>ESKOLA 2.0 MINIERAMANGARRIAK</p>	<p>LHko 5. eta 6. mailetako 4 ikasgelatan daude kokatuta armairuak baina, tamalez, ordenagailu hauek zaharkituta daude eta bateriak es dira kargatzen. Gela huts bat egokitu dugu sare elektrikora konektatuta, 20 minieramangarri dituena. Hala ere, XP sistema eragilea daukate eta oso motel dabilta. Aurrerantzean Linux sistemarekin berrerabiltzeko asmoa badugu ere, une honetan gutxitan erabiltzen dira.</p>
<p>IRAKASLE GELAKO ORDENAGAILUAK</p>	<p>Edozein irakaslek erabil ditzake, baita Hezkuntza bereziko hezitzaileek ere eta Eskolako atezainak (honek, udaletxeko harremana kudeatu ahal izateko IP finkoa duen mahaigaineko ordenagailu bat dauka, windows 7 SEarekin).</p>
<p>BULEGOETAKO ORDENAGAILUAK</p>	<p>Zuzendaritza taldeko kide bakoitzak ordenagailu bana dauka eta, honez gain, ekonomia kudeaketarako badago beste ordenagailu bat idazkaritzan. Bestalde, Laguntza irakasle guztiek (Aholkularia, 2 PT, ALE eta HIPI geletan) ordenagailu bana daukate, Windows 10 SEarekin. Ingeleseko Bulegoan beste mahaigaineko bat dago Windows 7 SEarekin.</p>
<p>ARETO GORRIA</p>	<p>Areto nagusian, batez ere emanaldi eta entseguetarako eta baita eskolaz kanpoko hainbat ekintzetarako soinu sistemari eta Kainoiari lotuta doan ordenagailu eramangarri bat dago. Windows XP sistema eragilea du baina, oraingoz, ez dago aurreikusita ordezkatzea. Ematen zaion erabilerarako baliagarria da.</p>
<p>INPRIMAGAILUAK</p>	<p>Txuri-beltzeko 3 lasser-inprimagailu daude solairu desberdinetan banatuta, denak A4 neurrikoak eta alde bakarretik inprima dezaketeenak. Bestalde koloretako inprimagailu bat dago lehen solairuan, hau ere A4 neurrikoa eta bi aldeetatik inprimatu dezakeena.</p>
<p>FOTOKOPIAGAILU ESKANNERRA</p>	<p>Irakasle gelan kokatua dago eta A3 neurrirainoko inprimakiak egin ditzake bi aldetatik txuribeltzean. Eskanner funtzioa, berriz, koloretan dauka eta A3 neurrirainoko dokumentuak eskaneatu daitezke.</p>
<p>ARGAZKI KAMERA DIGITALAK</p>	<p>2 kamera digital daude Pannasonic Lumix modelokoak eta beste 4 kamera txiki, geletan ikasleekin erabil daitezkeenak, zikloka banatuta. Denek daukate aukera bideoa ere grabatzeko.</p>
<p>KANPO CD IRAKURGAILUAK</p>	<p>Gaur egungo ordenagailu berriek ez daukate CD irakurgailurik eta noizbehinka baliagarria izaten da, batez ere HHko hainbat joku zahar</p>

Baratzategi, 19-20015 Donostia

Tfnoa: 943 29 70 23; Faxa: 943 27 90 59

e-posta: info@hegoa.eus 013079aa@hezkuntza.net

Web orria: www.hegoa.eus

	instalatzeko (ikastolen federaziokoak edo liburutegitik mailegatutako filmak eta eskolako hainbat baliabide digital erabiltzen jarraitu ahal izateko CD edo DVD formatuan daudenak (tutoretza baliabideak, ikusbit dokumentalak euskaraz, filmak...)
KANPO DISKA GOGORRAK	Gordailu bezala erabil daitezkeen 3 diska gogor ditugu, 1 TB batekoa eta beste bi 4 Tbkoak, eskolako argazki historikoa eta hustuketak egiteko balio dutenak. Premia arduradunak bulegoan ditu gordeta.
MIKROSKOPIO DIGITALAK	Laborategian daude 4 mikroskopia, zientzia Hezkuntzako baliabideekin batera. Alde batetik, laborategiko 4 mahaigaineko ordenagailuetara konekta daitezke. Bestalde, hauen kontrolatzailea den programa (Applied Vision) LHko geletako ordenagailutan ere instalatu da, pantailatara konektatu ahal izateko.

3.3. Software-a eta bestelako baliabide digitalak

- Open office: writer, Impress, (minieramangarrietan)
- Microsoft office: word, power point, movie maker, publisher, ... mahaigaineko ordenagailuetan (Windows SEaren arabera. Ordenagailu berrietan windows 10 dutenetan, office 365)
- Google aplikazioak chromebooketan (google docs, aurkezpenak e.a.). Core-ko aplikazioak erabilgarri 3. zikloko ikasleentzat, g-mail izan ezik.
- [IKT baliabide repositorioa sarean](#): Irfan view, poste-razor... hainbat software libreko aplikazio.
- Nabigatzaileak, explorer, firefox, edge, chrome,... ordenagailuen sistema eragilearen arabera instalatuta
- Irakasleen aldetik G-suite for Education baliabideak (classroom, drive, calendar, gmail, ... hegoa.eus posta elektronikoko korporatiboarekin erabiltzaile bezala) eta bestelako baliabideak: genially, educaplay... baliabide digitalak sortzeko.
- Edelvives "Jakintzaren zaindariak" arlo eta maila bakoitzeko ale bana.



- On-line baliabideak: gela PDI, Agregara, British Council-ek eskaintzen dituzten hainbat baliabide...

3.4. Lainoa eta Internet

3.4.1 Hegoa.eus domeinua

www.hegoa.eus web orrian, Wordpress-ekin egina, Eskolako erakusleho izateaz gain, eskolako hainbat informazio eguneratuta mantentzen da familien eta ikasleen eskura: Eskolako informazio orokorra, kontaktua, proiektuak, dokumentazio garrantzitsua, bidalitako oharra, agenda, jangelako menua, iragarki taula...

3.4.2 @hegoa.eus posta korporatiboa

- Irakasleak: Bakoitzaren karguarekin lotutakoak (tutoreak, berezilariak, laguntza taldea, jangela)
- Zuzendaritzako kideak
- Erabiltzaile bereziak: Harremanetarako erabiltzailea, webgunearen kudeaketa, super-administraria
- Ikasleak:
 - Gelako kontua (LH4. mailara arte)
 - Kontu pertsonala (LH5 eta LH6. mailatako ikasleen kasuan [gurasoen baimenarekin](#))
 -

3.4.3. Hegoa.eus You tube kanala eta argazki albumak (Google photos) Hemen zintzilikatzen dira eskolako argazki eta bideoak. Ikasturte hasieran familiei haien seme-alaben [irudia erabiltzeko baimen orria](#) ematen zaie sinatzera, beti ere helburu pedagogikoak medio.



3.4.4. G-suite for Education:

Plataformak eskaintzen dituen baliabideak eskuragarri daude irakasleentzat. Administrazio antolakuntzaren arabera baimenak eman zaizkie, irakasleei eta baita ikasleei ere. Momentuz, LH5. eta LH6. mailako ikasleek, adin txikikoak izanik, gurasoen baimena behar dute, google-eko eta eskolako politikari jarraiki, G-suitek, core-ko baliabideetan eskaintzen dituen programak erabili ahal izateko (g-mail ez ezik). Erabilera desegokiaren erantzukizuna, beti ere, gurasoena izanik.

4.4.5. Hegoa.eus Sites

Maila eta berezilari desberdinek, egindako lanak eta lantzen ari diren gaien inguruan gela bakoitzak dauzkan guneak. Eskolako web orrian ere ikusgai daude. Sarbidea, kasuak kasu, pribatua ala publikoa izan daiteke.

4. IKASTETXEAREN ESPARRU DIGITALAREN KUDEAKETA

Intxaurrondo Hegoa Ikastetxeko baliabide digitalen kudeaketa arduraduna Premia arduraduna da eta jardun erdiko dedikazioa du zeregin hauetarako. Bere eginbehar nagusia eskolako intranetaren eta bestelako baliabideen mantenua da, bai hardwareari, bai softwareari dagokionez. Gaur egun, honez gain, Gsuite for Education plataformaren kudeaketa darama. Gure kasuan, pertsona bera da IKT-Dinamizatzaile ardura duena, baina beste irakasle batzuekin elkarlanean, arduren banaketa eta kudeaketa hobetze asmoz. Hori dela eta **IKT batzordea** sortu zen arlo honetako lan talde bezala. Honakoa da bere osaera:

4.1. IKT BATZORDEA

PARTAIDEAK

- Premia arduraduna
- Zuzendaritza taldeko partaide bat
- Atzerriko hizkuntzako irakaslea
- LHko 2. eta 3. ziklotako irakasle bana

Baratzategi, 19-20015 Donostia

Tfnoa: 943 29 70 23; Faxa: 943 27 90 59

e-posta: info@hegoa.eus 013079aa@hezkuntza.net

Web orria: www.hegoa.eus

BILERAK:	Batzordea hamabostean behin biltzen da, ostegun eguerditan, 12:30etatik 13:30etara.
ARDURAK	<ul style="list-style-type: none"> • IKT Formakuntza plana: <ul style="list-style-type: none"> ○ Irakasleei begira ○ Familiei begira ○ Ikasleei begira • Berritzeguneko mintegietan parte hartzea: <ul style="list-style-type: none"> ○ IKT dinamizatzailen mintegia ○ Sare Hezkuntza Mintegia • Mintegietan jasotakoaren berri klaustroari zabaltzea (astelehenetako IKT prestakuntza saioetan) • Sare Hezkuntza proiektuaren dinamizazioa • Ikastetxearen araudia aztertu eta proposatzea, Klaustroaren eta OOGaren onespenerekin eskolako AJAn txertatu dadin. • Baliabide digitalen kudeaketaren kontrola bermatzea: <ul style="list-style-type: none"> ○ Baliabideen inbentarioa egunera eramatea ○ Erabilera araudia (gailuak, sarea, G-suite baliabideak, ordutegiak, espazioak...)

4.2 ARAZOAK KONPONTZEA

- **IKT arduradunari eskaerak:** irakasleek “google forms” erako inprimaki bat bete dezakete premia arduradunari matxuren edo matenu beharren berri emateko: [Premia arduradunari eskaera orria](#). Premia arduradunak, ahal duen heinean, arazoari irtenbidea emango dio.
- **CAU mantentze-zerbitzua:** Premia arduradunak, behar izanez gero, matxuren gertakari bat luzatuko dio CAU mantentze zerbitzuari 945207256 telefonora deituz:

- Hezkuntza aplikazioekin lotutako arazoa baldin bada, 1. Aukeran, euskarri teknikoari laguntza eskatuz.
- Mantentze informatikoaren zerbitzuarekin lotuta badago, 2 aukeran, entelgy-ibai enpresara joaz baita e-mailez ere mantentze-zerbitzua@hezkuntza.net.
- **Berritzeguneko Aholkularitza teknikoa:** IKT dinamizatzailen mintegien bitartez edota Bgko aholkulariarekin harremanetan jarritz.
- **Aholkulari tekniko pribatua.** Gehien bat homologatu gabeko edo zerbitzuz kanpo gelditzen diren arazo teknikoei irtenbidea eman ahal izateko: web orria, hosting-a ...
- **Segurtasun Kopiak:** TLL zerbitzari birtualizatu berria jarri digutenetik protokoloa aldatu da eta CAU mantentze zerbitzua arduratzen da lainoan segurtasun kopiak egiteaz.

5. SEGURTASUNA

5.1. SAREA:

Firewall, suhesi edo suebakia oinarritzko alde z aurretiko neurria da, sareko segurtasuna hobetzeaz gain, kontrolerako eta zentsurarako erabili daitekeena. 3.1. atalean zaltzen den unitate desberdinetara sartzeko baimen sistemaz gain, RACKean kokatua dagoen Fortinet-ak internetaren erabilera mugatzen du, Eusko Jaurlaritzak ezarritako irizpideen arabera. Honenbestez, ikasle eta irakasleek ere galerazita daukate hainbat web helbideetara joatea. Hala ere, kasuan kasuko salbuespena eskatzerik badago, erabilera pedagogiko baten justifikazioa medio. Bestalde, kanpoko sarbidea ere galarazten du Fortinetak, ziber erasorik jasan ez dezagun. Honez gain zenbait aplikazioen erabilera ere debekatua dago, hala nola, “chat” erakoak.

Chromebook-en kasuan, ez daukagu firewall aukerarik, beraz, Gsuite administrazio kontsolatik ezartzen dira erabilera mugak. Ikasleen kasuan g-mail erabiltzea galerazita dago, hainbat aplikazio edo sare sozialetan batez ere izen-ematea galerazteko.

Software instalazioa: Sare administratzaileak bakarrik dauka bestelako software-a instalatzeko baimena (mikroskopiaok erabiltzeko programa, ea). Behar izanez gero, irakasleek berarengana jo behar dute eskaera egiteko. Gainera, zenbait kasutan CAUra eskaera luzatu beharra dago (Sistema Eragile berriak...)

Karspersky: Antibirusa CAUtik kontrolatzen dute honen eguneraketa mantentzea.

Zibersegurtasuna: Urtero, zibersegurtasunari buruz eta interneteko arriskuei buruzko **prestakuntza saioak** antolatzen dira, Ziberbullying, sexting, grooming... inguruan: Ertzaintzak ematen dituen hitzaldiak, Baikarak antolatutakoak (Pantallas amigas...), bai gurasoentzat, bai ikasleentzat. Bestalde, eskolako sarean irakasleen eskura daude [zibersegurtasuna](#)ren inguruko hainbat baliabide, bai irakasleentzat eta baita ikasleentzat ere. Tutoretza ekintza Planetan ere txertatuta daude IKT-en erabileren arriskuen inguruko jarduerak.

G-suite baliabideak: G-suite for Education plataformak eskaintzen dituen baliabideen arduraduna Ikastetxeko IKT arduraduna da. “Unidades organizativas” bezala antolakuntzaren arabera kudeatzen dira baimenak. Aplikazioen arabera baita. Ikasleen kasuan, erabaki zen g-mail ezin erabili ahal izatea, interneteko sare sozialetan eta hainbat plataformatan ezin izena eman ahal izateko. LHko 4. Mailara arte, gelako erabiltzaile bakarra dago, chromebook-etan sarbidea euki ahal izateko. Bestalde, LH5. mailatik aurrera ikasleek hegoa.eus domeinuko banakako kontua izango dute, IIB sarbiderako, baina ezingo dute g-mail edo hangouts erabili, zibersegurtasuna eta ziberbullying arazoak ekiditzeko.

6. SORMENA

Ikasleek sortutako ekoizpen digitalak, gaur egun, eskolako web orriaz gain, www.hegoa.eus maila desberdinetako Sites-etan daude ikusgai. Mailako ikasle-erabiltzailearekin sar daitezke eta hegoa.eus domeinuko irakasle guztiekin partekatu dira. Ikasleek mailako siteetara daukate sarbidea.



Bestalde, ikasleek, eskolako sarean, nor bere karpetan ere gordeta ditu beraien lanak.

LH5 eta LH6. mailako ikasleek, gainera, Driven partekatzeaz gain, classroom IIBa erabiltze dute beraien ekoizpenak irakasleari helarazteko, bai indibidualki, bai talde bezala. Aurkezpenak egiten dituztenean ere ebaluaziorako formularioak erabiltzen dituzte, bai auto-ebaluaziorako eta baita hetero-ebaluaziorako.